

## **ESKAINTZAK OSATZEKO INFORMAZIOA**

1. Lizitazio eskaintzak inprimatutako paperrean eta euskarri iraunkorrean aurkeztuko dira.
2. Lizitazio eskaintzak aurkezteko Kontratatzaile Profileko 001/20 espedientetik deskargatutako dokumentuetatik hiru erabili beharko dira.
  - a. **Enpresak osatu beharreko Eskaintze ekonomikoaren Eredua (V. Eranskina):** orrialde bakoitza enpresaren ahaldunak sinatuta eta enpresaren zigilua duela, inprimatutako paperrean aurkeztuko da.
  - b. **Eskaintza ekonomikoen Excel taula:** formatu digitalean aurkeztuko da (usb, disko gogorra edo CD) eta paperrean aurkeztu den aurreko ereduaren informazio bera eduki beharko du (V. Eranskina).
  - c. **Eskaintzen diren produktuen fitxa teknikoa (VI. Eranskina):** orrialde bakoitza enpresaren ahaldunak sinatuta eta enpresaren zigilua duela, inprimatutako paperrean aurkeztuko da. Baita formatu digitalean ere (usb, disko gogorra edo CD). Eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren adostasun ziurtagiria eta proben ziurtagiriek batera bidaliko dira.
3. Formatu digitalean aurkeztutako proposamenak inprimatutako paperrean aurkeztu direnekin bate etorri beharko dira. Bi formatuen artean desberdintasunik balego, inprimatutako paperrean aurkeztutako informazioa soilik hartuko da kontutan.

## **ESKAINTZEN EXCEL TAULARI BURUZKO INFORMAZIO ESANGURATSUA**

Enpresa lizitatzailleak eskaintza ekonomikoen Excel taulan ondorengo datuak bete beharko ditu: enpresaren izena, NIF, telefono zenbaki eta fax zenbakia. Arreta berezia jarri beharko zaio NIF laukiari, zenbaki zuzena dela berrikusiz. Izan ere, enpresa lizitatzaillea identifikatzeko datu hau erabiliko da eta.

1. Eskaintza ekonomikoen Excelan aurkeztutako eskaintzek eskaintza ekonomikoaren ereduaren (V.eranskina) aurkeztutako eskaintza ekonomikoekin **bat etorri** behar dute. Hala ez bada, posible izango da taula batean eta bestean bat ez datozen eskaintzak kontutan ez hartzea.
2. Enpresa bat azpilote edo lote jakin batera aurkezten ez den kasuetan, **lote edo azpilote horri/horiei dagozkien gelaxka/k EZ dira ezabatuak izango**. Hau da, Exelean aurrez ezarritako lote eta azpilote guztiak mentendu beharko dira.
3. **Grisean agertzen diren gelaxka edo eremuak ez dira osatuko** inongo datu edo informaziorekin. Txurian dauden gelaxkak soilik osatuko dira. Dena den, Exelean aurrez ezarritako artikulua kopurua baino gehiago aurkezten direlako **lerroak gehitzen badira, sortu diren lerroetan Precio unitario**

- con IVA zutabeko formula kopiatu beharko da.** Horretarako nahikoa izango da goiko gelaxkako formatua arrastatuz kopiatzea.
4. Enpresa lizitatzailleak osatu beharrekoz gelaxka edo eremuak ondorengoak dira:
- Artikuluak:** zutabe honetan azpiloterako eskaintako artikuluak zerrendatuko dira, kasu bakoitzean 1etik hasita.
  - Artikuluaren erreferentzia:** dagokion artikuluari enpresa lizitatzailleak ematen dion erreferentzia zehaztuko da hemen. Aurkeztutako fitxa teknikoarekin eta ziurtagiriekin errez lotzeko modukoa izan behar da. Eskaintzen diren artikuluak erreferentzia zenbakiaren arabera ordenatu beharko dira.
  - Izena:** eskaintako artikuluaren izena.
  - Unitateko prezioa BEZ gabe:** artikuluarentzat enpresak eskaintzen duen prezioa da. Gelaxka honetan osatu beharko da soilik zenbakiak eta bi hamarreko erabiliz. Adibidea: 26,25.
  - BEZ%:** lerroak gehituz gero (artikuluak), gezia sakatu eta 0,21 aukeratu beharko da, produktuari aplikatzen zaion %21erko BEZ-a aplikatzeko.
  - Berme epea:** atal honetako lehen zutabearen produktuarentzat enpresak eskaintzen duen berme epea (hilabetetan) zenbakiz osatu beharko da (adibidez, 36). Atal honetako bigarren zutabearen gezia sakatu eta "meses" aukeratu beharko da.
  - Banatze epea:** atal honetako lehen zutabearen produktuarentzat enpresak eskaintzen duen banatze epea (egun baldiodunak) zenbakiz osatu beharko da (adibidez, 25). Atal honetako bigarren zutabearen gezia sakatu eta "días hábiles" aukeratu beharko da.
5. **Beharrezkoak direnak baino lerro gehiago gehituz gero eta lerro hauetan hutsegite baten ondorioz datuak osatuz gero, aipatutako lerroak ezabatzeko aukerarik ez dagoenez, lerro guzti hau txurian (osatu gabe) utzi beharko da.**

Hau da, edukia duten lerro guztiak edo osatuta dauden lerro guztiak, lizitaziora aurkeztu nahi duten produktuak direla ulertuko da. Beraz, osatuta dauden lerroak akordio markora aurkezteko diren produktuak izango direla ulertuko da.

Epe eta prezioak plegu administratiboetan ezarritako mugen barnean aurkitu beharko dira. Hala ez bada, eskaintza horiek Akordio Markotik baztertuak izango dira.